

# 2013an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

## Sarako Idazleen Biltzarrak Jean Haritschelhar omendu zuen

Euskaltzain, euskal ikasketen sortzaile, idazle... Jean Haritschelhar euskaltzain emeritu eta euskaltzainburu ohia omendu zuen 2013ko Sarako Idazleen Biltzarrak. Apirilaren 1ean egindako ekitaldian, bere bizi osoan burutu duen lanagatik omenaldia jaso zuen eta horrela adierazi zuen Jean-Michel Garat Biltzarraren sortzaileak: «Lan ona eta interesgarria izan da, ez bakarrik hizkuntzarentzat, euskararentzat, baita kulturarentzat ere».

Orain 30 urte, Biltzarraren lehenengo edizioan izan zen Jean Haritschelhar.

Omenaldi hau jaso eta bost hilabete geroago, irailaren 1ean, hil zen Jean Haritschelhar, 90 urte zituela.

## Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* nobela saritua

Ramon Saizarbitoria idazle eta euskaltzain urgazlearen *Martutene* nobelak (Erein, 2012) hainbat sari irabazi zuen 2013. urtean. Apirilean, Espainiako Kritikaren Saria eman zioten, euskararen arloan, narratibaren atalean. Hil berean, 2012ko 111 Akademiaren Saria ere jaso zuen.

Urrian, aldiz, Euskadi Literatura Saria irabazi zuen, euskarazko narratiba alorrean. Kasu honetan, epaimahaikideek hauxe azpimarratu zuten: «Afektibotasuna, gizartea eta literatura dira lan handi honen hiru ardatzak».

### **Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma Karmel aldizkariko Julen Urkizari**

Julen Urkiza idazle eta *Karmel* aldizkariko zuzendariak Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma jaso zuen ekainaren 6an, Areatzan egindako ekitaldi batean. Urkizak Gonzalo Olabarria Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendariaren eskutik jaso zuen saria. Ana Urkiza idazleak eta Asier Muniategi liburu azoken antolatzaileak ere parte hartu zuten ekitaldian.

Azokaren izenean, Ana Urkizak gorazarre-hitzak izan zituen Julen Urkizarantz eta *Karmel* aldizkarian egindako lana goraiatu zuen. Hala, aldizkaria idazleen topaleku bihurtu duela esan zuen. Izan ere, euskal kulturaren inguruko pertsona askok parte hartu du aldizkarian, bai idazle ezagunak, baita hasiberriak ere, eta hori, Ana Urkizaren esanetan, Julen Urkizaren meritua izan da. Idazle horietako batzuk ekitaldian izan ziren, besteak beste, Andres Urrutia, Patxi Uribarren, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Juaristi edota Miren Agur Meabe.

### **Arantxa Urretabizkaia Bilboko Liburu Azokaren Zazpi Kale saria jaso du**

Arantxa Urretabizkaia idazle eta euskaltzain urgazleak Zazpi Kale saria jaso zuen ekainaren 6an, *3 Mariak* eta *Las tres Marias* liburuengatik. Bilboko Udalak, Liburu Ganbarak eta Liburu Azokak ematen duten sari hau Sabin Anuzita Udaleko Euskara zinegotziaren eskutik jaso zuen Urretabizkaia. Idazleak eskerrak eman, eta *3 Mariak* nobelak satisfazio handiak eman dizkion liburua dela esan zuen.

### **Juan de Yciar saria Euskaltzaindiari, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa argitalpenagatik**

Euskaltzaindiak garatzen duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoaren argitalpena saritua gertatu zen Argitaratze-kalitatearen «Juan de Yciar» sariarekin.

«Instituto Bibliográfico Manuel de Larramendi»-k antolatzen duen sari hori, 2012. urtean argitara eman zuen EHHA bildumaren IV. liburukiaren argitalpenagatik jaso zuen Akademiak.

Lau alor edo modalitatetan eman ziren sariok: Artea, Haur eta Gazte Literatura, Lan orokorrak eta Dibulgaziokoak. Euskaltzaindiaren *Euskaren Herri Hizkeren Atlasaren IV.* liburukia lan orokorren sailean izan zen irabazle. Sari bikoitza izan zen: argitaratzailea, Euskaltzaindia, eta inprimatzailea, MCC graphics.

Ekainaren 11n izandako ekitaldian, Adolfo Arejita, EHHA egitasmoaren zuzendari akademikoak eta aipatu inprimategiko ordezkariak jaso zituzten sari agiriak, Leopoldo Zugaza «Manuel de Larramendi» Bibliografia Institutuko buruaren eskutik.

## Ana Etxaideri omenaldia, Nafarroako Unibertsitatearen Euskal Katedraren 50. urteurrenean

Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak 50 urte bete zituen 2013an. Urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi egin ziren azaroan zehar. Azkena, hilaren 27an, urte askoan Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedraren zuzendari izandako Ana Etxaide irakasle eta ohorezko euskaltzainari omenaldia izan zen.

Ekitaldia *Duguna* dantza taldearen emanaldiarekin hasi zen. Ondoren «Impulso a la cultura vasca en el siglo XXI» izenburupean, mahai-inguru bat egin zen. Bertan, Andres Iñigo Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak hartu zuen parte. Berarekin batera, hauek izan ziren: Maximino Gómez, Euskarabidearen zuzendari kudeatzailea; Aizpea Goenaga, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria; Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako presidentea; Susana Irigaray, Jose Miguel Barandiaran Fundazioko idazkaria; Michel Duvert, Baionako Museoko Adiskideen Elkarteko presidentea; eta Mari Mar Larraza, Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrako zuzendaria.

Ondoren, Ana Etxaideri omenaldia egin zitzaion, Manuel Casadoren eta Asier Barandiaranen eskutik. Amaitzeko, Jesus Guridiren abestien errezital

bat eskaini zuten Nerea Berraondo mezzosopranoak eta Maite Ascunce piano-jotzaileak.

Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra 1963ko azaroan sortu zen, garai hartan Filosofia eta Letretako dekanoa zen Antonio Fontanen ekimenez. Hilabete batzuk geroago, 1964ko otsailean, José Miguel Barandiaran euskal arkeologo eta etnologoaren eskutik abiatu zen. 70eko hamarkadaren erditik aurrera, Ana Etxaide euskal filologoak Katedraren zuzendaritza hartu zuen, euskalkiak berreskuratzeko beste lan ildo bati ekin zion eta euskal hizkuntzalaritza ikasketa plangintzetan sartu zuen.

### **William Douglassk Durangoko Azokaren Argizaiola saria jaso du**

William Douglass antropologo eta ohorezko euskaltzainak jaso zuen 2013ko Durangoko Azokaren Argizaiola saria. Abenduaren 6an jaso zuen, Nerea Mujika Gerediaga elkarteko presidentearen eskutik. Euskal kultura ikertu eta zabaltzeagatik eman zioten saria.

Durangoko San Agustin Kultur Gunean egindako ekitaldian, Renoko ikertzaileak hainbat lagun izan zuen ondoan, besteak beste, Miel Anjel Elustondo, Bernardo Atxaga, Xabier Amuriza edota Josu Camara. Douglassen Aulestiko lagunak ere taulara igo ziren.

William Douglass Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldeko euskal immigrazioaren aditurik garrantzitsuenetarikoa da. Renoko Basque Studies Programaren sortzailea izan zen, eta hiru hamarkadaz bertako zuzendari gisa jardun zuen, 2000. urtean erretiroa hartu zuen arte.

### **Espainiako Itzulpengintzako Sari Nazionala Josu Zabaletari**

2013an, Josu Zabaleta Kortaberria itzultzaile eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen Espainiako Itzulpengintzako Sari Nazionala, euskarara egindako itzulpenengatik. Epaimahaiaren arabera, «euskarazko itzulpengintzan

aitzindaria izan da eta hizkuntza literarioak eta poetikoak sortu eta garatu ditu». Sari hau Espainiako Kultura Ministerioak ematen du.

Besteak beste, Leonardo Sciascia, Pier Paolo Pasolini, Margueritte Yourcenar eta Pirandello idazleen lanak itzuli ditu Zabaletak.

Josu Zabaletaren hautagaitza Euskaltzaindiak proposatutako Miren Lourdes Auzmendi epaimahaiko kideak aurkeztu zuen.